

• MATTIN •



...gure aberria askatu arte

• JOSELU CERECEDA •

[IPARRA HEGOA FUNDAZIOKO KIDEA]

A spaldi honetan gure erre-alitatearen parametroak etengabe aldatzen dabil-tza, etorkizunarekiko aurrikuspe-nak hobetzen —ikusuntu aurre-rakoi eta abertzale batetik ikusita, noski—. Aldaketa hau, ezinbestez, kontutan hartu behar dugu gure azterketa politikoak egiteko eta erabakiak hartzeko orduan. Sozio-politika munduan ez dago erabat estatiko denik ezer. Atzo zuria zena gaur gorria izan daiteke.

Joan den maiatzaren 18an EH, EAJ eta EAren artean sinaturiko Ituna beste aldaketa esanguratsu bat izan da, erinkuntza nazionalaren mesederako, batez ere. Itun horrek, euskara eta enpleguaren aldeko borrorak, besteak beste, indartuko ditu, euskal lurraldetasunaren kohesioa landuz beti. Egia esan, benetan pozgarria da zelan doan indartzen Abertzaleon Bata-suna ikustea, inolako sektarismo barik, euren onetik erabat aterata dabilzan PP-k eta PSOE-k kontra-koa esan arren (zelako espektakulu tamalgarria ematen ari diren! Aber-tzale mundua sendotzen doan hei-nean, haiek, etsipenak eraginda, euren ezgaitasuna eta demokrazia eta kultura eskasia agerian uzten dituzte).

Bizi dugun garai historiko hone-tan, gure lan egiteko era —institu-zionala barne— aldatu eta areago-tu beharrean gaude. Beste metabo-lismo politiko-kultural batek bizi behar gaitu, baina, esan gabe doa, gure helburu estrategikoak aldatu gabe. Honek hausnarketa sakon bat, hala indibiduala nola kolekti-boa eskatzen digu, eta, ondorioz, lan handiagoa arlo guztietan. Ez dakit kontzienteak garen gaur egun guztiok daukagun erantzuki-zunaz.

Kontraesanak sortu eta sortuko dira, Ezker Abertzalearen, EAJren, EAren eta Lizarra-Garazi Akordioa onartu eta onartuko duten guztien baitan, eta taldeen artean. Lehe-nengo lana, oztopo hauek gaindi-tzea da eta izango da. Zaila, baina egin beharrekoa, Historiak eska-tzen baitigu. Iraganean gure artean sorturiko eztabaida eta istilu ahan-tzezin batzuk guztiok dauzkagu bu-ruan. Nik ez dut dena ahaztu behar dugula esan nahi, baina *artxibatu* gutxienez, bai. Eta ez dezagun pen-tsa gu akatsgabekoak, *onenak* izan ginela, pekatari bakarrak *besteak* zirela. Horrela pentsatzea gezur ga-lanta izateaz gain, harrokeria hutsa izango litzateke. Guztiok izan geni-tuen hutsak. Guztiok. Etorkizun-ak, Historiak, Aberriak, etengabe indarrak metatzea, elkarrekin go-goiz lan egitea eskatzen digute eta, ondorioz, gure buruari sekulako astinketa eman behar diogu. Histo-riara egokitu behar!

Datorren ekainaren 13an Euro-par Parlamenturako, Nafar Parla-menturako, udaletxerako eta, Eus-kal Autonomia Erkidegoan, batzar nagusietarako hauteskundeak dauzkagu. Lehengo eta behin, abertzaleok emaitza onak lortzen baditugu —lortuko ditugu— beste aurrerapauso bat emango dugu gure eraikuntza nazionala garatze-ko. Baina, garrantzitsuena, geroko lana behar den bezala aurrera era-matea udaletxeetan, batzar nagu-sietan, Nafar eta Europar Parla-mentuetan.

Europar (ze pena elkartuta aur-keztu ez izana!) azalduko dugu Euskal Herrian benetan gertatzen dena, betikoez bidaltzen duten intoxikazioa deuseztatzeko. Bestal-detik, gure pentsakera; Espainiak, Frantziak eta Europar Batasunak

ezagutu behar dute Nazio bat gare-la, autodeterminazio eskubidea dagokigula eta Europan, herri guz-tiekin lankidetasunaz, Nazio bezala jardutea dugula helburu.

Nafarroan, Nafar Parlamentua eta udaletxeak (baita kontzejuak ere) eratuko dira. Euskal Autono-mia Erkidegoan, udaletxeak eta batzar nagusiak. Aukera parega-bea, 35 orduko lan astearen, enple-guaren, euskeraren alde eta erro-meskeriaren aurka lan sakon eta eraginkorra egiteko. Batzar nagu-siak, lurralde bakoitzeko *parla-mentua*, foru aldundiak, diputazio-ak, *gubernuak* ziren bitartean.

Diputazioak eta udaletxeak beti-danik elkarri lotuta, oso, egon dira. Gaur egun, diputazioek maneia-tzen duten dirutzatik udalatxeek erabiltzen dutena ateratzen da. Esanguratsua. Nafarroan, Foru Hobekuntza dela eta, mota honeta-ko egiturak desberdinak dira, parte hartze instituzionala tradizio han-diagokoa izanik.

Udaleko lana aipatzean, ezin dugu ahaztu Udal Ordezkariei Bil-tzarra (UOB). Lizarra-Garazi Akor-dioa, euskal gatazka konpontzeko oinarria eta tresna den bitartean, UOB eraikuntza nazionalari dago-kio. UOBk izaera nazionala dauka, Euskal Herri osoa ordezkatzen duena, hots, euskal lurraldetasuna bere osotasunean hartuta, sozioe-konomia, euskara, hezkuntza... behar den bezala aztertzeo eta lantzeko lanabes paregabea.

Ezin gara egon gatazka noiz konponduko zain gure nazioa erai-kitzen hasteko. Gure etorkizuna-ren jabe bakarrak gu geu gara, beraz, oraindik, lan, lan eta lan, euskararen, enpleguaren, justizia-ren, herriaren alde... Gure Aberria erabat askatu arte.

...  LORE ERRIONDO

Musika



Musikastea dugu aste hau Errenteria/Oreretan. Hamai-ka urte bada dagoeneko os-patzen hasi zenetik, eta urte-ro-urtero, bakar batean ere kale egin gabe izaten dugu aukera bertan gure musikaz gozatzeko, bera entzun eta ezagutzeko ere. Musikariak di-renak eta ez direnak, musikaza-leak, kulturzaleak eta beste edonork

ere badu aukera bertaratzeko. Beti egokitzen da obraren baten estreinaldiaren lekuko izateko parada, beti sorkuntza eta musika garaikidea deritzonaren berritasunei erreparatzeko beta, beti-betiko musikaz, abesbatzez blaitzeko auke-ra eta beti, beti ere euskal eta Euskal Herriko musikagileek beren txokoa.

Izan daiteke herrikoa naizelako edo, atxiki-mendu berezia izatea, baina ez dut uste. Ez dut askotan izaten bertaratzeko aukerarik, baina, hala ere, zoragarria da bereziki gaiarekin intere-saturik daudenez gainera *herritar arruntak* ho-rrelakoetan parte hartzen ikustea; goi-mailakoa izanagatik ere herrikoa baita oso Musikaste. Aurtengoan, Eresbilen hogeita bosgarren urteu-rrena ere ospatzen denez omenaldia ere jasoko dute egitarauaren baitan bertako parte hartzai-leek. Omenaldi biziki merezitakoa. Musikaste sortu eta bi urtera jarri bazen ere martxan Eres-bil artxiboa, antolatzaileek dioten modura, «gu-rasoak baina urrunago egin du hegan haur ho-nek», gehienetan gertatzen den lege. Baina bai-ta isilpeko lana egin ere, bai ezkutuko lana, bai lan eskerga, handikeriarik gabekoa, zalaparta gutxikoa, baina zeinen garrantzitsua gure herri-ko musika ondarea arakatu, bildu eta berrera-i-kitzea.

Horrelako ekimenetan beti somatzen dut gu-txiespen puntu bat, eta hala izan ezean ere zor-zaion aitortzarik ez zaiola egiten gutxiarik. Ezin uka altxorra dugula bertan, baina ez gorde eta ezkutatzeko altxorra, hedatzeko eta lau haize-tara zabaltzeko baizik. Ikerlariarentzako errefe-rentzia gune delakoan nago dagoeneko, baina ez dut uste horretara mugatu behar dugunik, he-siak jarri baino halako lana guztion aberasta-sun kulturalaren ondare izan dadin egin behar-ko genuke guztiok ahalegin. Hara hor harrobia ikastetxeek, musika-eskolek...

...kornerra

MIKEL ELORZA

Lan eskubidea

■ Iratzargailu lana egiten du grebak. Baina ez naiz ari jendea kalera ateratzeaz; lan egite-ko eskubideaz baizik. Urteak egin ditzake, eta egiten ditu, lan eskubideak lotan, konsti-tuzioen eta hauteskundeetako programen al-tzoan zurrungan. Lege eta deklarazio gore-nek babesten duten arren, alferrik hasiko za-ra zure lan eskubidea gauza dadin eskatzen. Printzipio orokor dela esango dizute, aplika-zio zuzena nekez duena... harik eta greba egi-ten duzun arte. Orduan inongo indarrak bor-titzenarekin esnatuko da lan egiteko eskubi-dea... greba egin ez duenarena, jakina. Lan egiteko eskubidea haizatuko dizute gobernu, ugazaba eta komunikabideek. Piketeen jar-dun zanpatzaileaz ariko zaizkizu. Koakzioaz. Eta grebaren oihartzun eta balizko arrakasta pixkat nahastu orduko, atzera lotara bidali-ko dute. Hurrengo grebara arte.